

**ZORROZAUURREKO DINAMIZAZIO EKONOMIKOKO  
PROIEKTUENTZAKO 2016KO DIRU LAGUNTZEN  
PLANERAKO DEIALDIA**

**BILBAO EKINTZA, EPEL (BILBOKO UDALA)**

Bilbao Ekintza Bilborako ekonomia- eta gizarte-aberastasunaren sorrera sustatzen duen udal-erakundea da, Bilboko Udaleko Garapen Ekonomiko, Merkataritza eta Enplegu Sailera atxikita dagoena; horretarako, hiria bultzatzen du inbertitzeko leku erakargarri gisa eta enpresak sortzen eta hazten laguntzen du, laneratzeko aukerak hobetzen dituela.

Bilbok, duela hamarkada batzuetatik hona, eraldaketa bizi du hirigintzan, gizartean eta ekonomian, eta, hori dela eta, politika integratzaileak behar izan dira, jarduera ekonomikoa erakartzeko hiribildura, herritarren bizi-kalitatea hobetzeko, hiriaren posizionamendua hobetzeko helmuga turistiko gisa, batez ere biltzarren turismoa, eta kultura hazteko eta garatzeko motor gisa baloratzeko.

Ibilbide horri jarraipena emateko, 2015eko abenduan, 2015-2019 Gobernu Plana onetsi zen; bertan, helburu nagusiak deskribatzen ziren, hamar ardatz estrategikoren bidez, hiriarentzako hamasei proiektu estrategikorekin. Horietako lehenengoa 1. proiektua da: *Zorrotzaurre*. Horren helburua da *Toki fisikoaren prestaketa sustatu eta beharrezkoak diren akordio eta gestioak burutzea, Zorrotzaurre uhartera enpresa-proiektu, ekonomia berrian inbertsioa eta balio erantsi handiko ekintzak erakartzeko eta interes handiko gunean bihurtzeko, oraingo egoitza-espazioarekin eta burutuko denarekin oreka mantenduz.*

Zorrotzaurre Bilboko portuko eta merkataritzako jarduerari historikoki lotuta egon zen hiriko gunea da; bertan ezarri zen industria-jarduera sendoa. Baina hirurogeita hamarretako krisiak gogor astinduta, bertako industria-ehuna gainbeheran hasi zen. Horren ondorioz, hainbat industria desagertu egin ziren, eta tokiko bizi-kalitatea ere eskastuz joan zen, eraikinen eta espazio publiko zein pribatuaren zaharkitzea zela medio

Gauzak horrela, garrantzizkoa da alor publikoaren eta pribatuaren arteko elkarlana, eragile publikoak ez ezik ekimen pribatuak ere esku hartzeko bidea izan dezan eraldaketa-prozesuaren jarduketetan eta, era horretan, bere alea jar dezan Zorrotzaurreko ingurua birdinamizatzeko egitasmoan. Hori da laguntza ekonomikoen deialdi honen helburu nagusia.

Bestalde, udalaren gainerako diru-laguntzen kudeaketa egokia ezartzeko, Bilboko Udalak, Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrean ezarritako arauzko eskakizunei erantzuteko, 2016ko ekainaren 30eko bileran Bilboko Udalak eta bere erakundeek eta zuzenbide publikoko erakundeek deialdiaren bidez diru-laguntzak emateko oinarriak arautzen dituen ordenantza orokorra onetsi zuen, eta behin betiko onespena 2016ko uztailaren 20an argitaratu zen, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean (138 zk.).

Azaldutako guztian oinarrituz, Bilbao Ekintza, EPELen Administrazio Kontseiluak 2016ko irailaren 1ean egindako bileran, *Zorrotzaurreko Dinamizazio Ekonomikoaren Proiektuentzako Laguntza Ekonomikoen Planaren deialdia* onartu du 2016. urterako.

## 1. XEDEA

Bilbao Ekintza, EPELek, deialdi honen bidez, Zorrotzaurreren dinamizazio ekonomikoari bide emango dioten jarduerak egin daitezzen bultzatzea du helburu, honako hauen bidez:

- Enpresa-ekimenak sustatzeko eta finkatzeko programak eta/edo ekintzak.
- Publikoa erakarriko duten eta irlaren kokapena hobetuko duten ekintzak.

Epeari dagokionez, diruz lagundu daitezke 2016ko urtarrilaren 1ean hasitako proiektuak ere, eta guztiek urte bereko abenduaren 31 baino lehenago amaitu beharko dute.

Denboran iraungo duten proiektuen kasuan, bakarrik lagundu ahalko dira diruz 2016 ekitaldiari egotzitako gastuak.

Salbuespen gisa, diruz lagungarritzat jo ahalko dira 2017ko urtarrilaren 31 baino lehenago burutzen diren proiektuak, baldin eta ekitaldia amaitu baino lehen ekin bazaie.

Aurrez ikusten diren laguntzak ekonomikoak dira.

Enpresa-ekimenak sustatzeko eta finkatzeko programak gauzatzeko, koordinazioa egon beharko da Bilbao Ekintzako Enpresa Sustapenerako Arloarekin, eta hala jaso beharko da eskabidean.

## 2. ERAKUNDE ONURADUNEN BETEKIZUNAK

Laguntzak legez eratuta dauden eta baldintza hauek betetzen dituzten erakundeek eska ditzakete.

- Zorrotzaurren jarduera ekonomikoa eragiten laguntzen duen proiektua izatea, dela ikuspuntu kuantitatibotik, dela kualitatibotik.
- Egunean egotea bai administrazio publikoekiko dagozkion zerga betekizunetan, bai Gizarte Segurantzarekiko bete beharrekoetan ere. Bilboko Udalarekiko zerga-egoera ofizioz egiaztatu ahal izango du Bilbao Ekintza EPELek.

Oinarri hauek bete beharko dira erakundeak deialdi honetan jasotako laguntza-programan parte hartzen duen denbora guztian.

## 3. DIRUZ LAGUN DAITEZKEEN GASTUAK

Diruz lagun daitezkeen gastuak dira inolako zalantzarik gabe diruz lagundutako jardueraren izaerarekin bat datozenak, baldin eta benetan beharrezkoak badira eta deialdi honetan ezarritako epean egiten badira.

Deialdi honetan xedatutakoarekin bat etorri justifikatzen diren gastuak, bai arruntak bai proiektua burutzeari lotuak lagundu ahal izango dira diruz, hala nola:

- Kontratuaren bidez erakunde onuradunari lotutako langileen ordainsariak; bakarrik gastu hautagarrien aurrekontu guztiaren % 40 gainditzen ez duten zenbatekoak kontuan har daitezke.
- Argi-, ur-, telefono-, gas- eta Internet-kontsumoak.
- Material eta ondasun suntsikorrak, diruz lagundutako jardueren ekoizpenari lotuak.
- Bilbao Ekintzak alde zuzenetik onartutako bestelako gastuak.

Balio Erantsiaren gaineko Zerga ez da diruz lagungarritzat joko non eta ez duen amaierako gasturik ekarri erakundearentzat.

#### **4. DIRU-LAGUNTZEN ONURAK ETA ZENBATEKOA KALKULATZEKO ERA**

Diru-laguntza hauek norgehiagoka erregimenaren arabera deitzen dira.

Hautatzen diren proiektuetan barne hartzen diren, 2016. urtean gauzatzen diren eta deialdi honetan jasotako helburuak lortzea xede duten jarduerak lagundu ahal izango dira diruz. Laguntzen kopurua eta munta hurrengo ataletan ezarritakoaren arabera zehaztuko dira.

Ematen den laguntza ekonomiko bakoitzak gehienez diruz lagundu daitezkeen kontzeptuen aurrekontuaren % 50eko zenbatekoa izango du, eta gehienez 30.000,00 €, eta 5. atalean adierazitakoarekin bat etorritik kalkulatu da. Era berean, bakarrik lagunduko dira diruz bi proiektu erakunde eskatzaile bakoitzeko eta, gehienez, 50.000,00 euro.

Deialdi honen babesean ematen den gehieneko zenbatekoa balorazio-irizpideak aplikatzearen ondoriozko eta 5. atalean deskribatutako puntuen eskalaren ondoriozko sailkapenaren arabera izango da. Zenbatekoak honako hauek izango dira:

- a) A mota, gehienez 30.000,00 €.
- b) B mota, gehienez 20.000,00 €.
- c) C mota, gehienez 10.000,00 €.
- d) D mota, gehienez 5.000,00 €.

Diru-laguntzen zenbatekoa ez da inola ere diruz lagundutako proiektuaren kostua baino handiagoa izango, diru-laguntza bera bakarrik edo beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideekin batera.

#### **5. BALORAZIO IRIZPIDEAK**

Laguntza Ekonomikoen Plan honetarako erabilgarri dauden baliabideak mugatuak izanik, eskabideak baloratzean kontuan hartuko dira haien interesa eta bideragarritasun teknikoa zein

ekonomikoa, eta zenbateraino diren lagungarriak deialdi honetako helburuak betetzeko, honako irizpide hauen arabera:

100 puntutik:

1. Zorrotzaurreko garapen ekonomikoan eragina izateko duen gaitasuna. 60 puntu

Garapen ekonomikoan proposatutako proiektuaren eraginkortasuna eta eragina. Horretarako, honako hauek izango dira kontuan:

- a. Ekintzailtza-proiektuak sustatzeko gaitasuna.
- b. Enpresa-proiektuen lehiakortasuna hobetzeko gaitasuna.
- c. Enplegua sustatzeko gaitasuna.
- d. Bertako talentuari balioa emateko ekarpena.
- e. Ekintzailtzean eta enpresa-egituran berrikuntza sustatzeko laguntza.
- f. Enpresa-ekimenei ikusgaitasuna emateko gaitasuna, honako hauen bidez:
  - i. Nazio eta nazioarte mailako enpresa-sareetan sartzeara.
  - ii. Programarekin lotutako azoka, jaialdi eta hitzaldietan parte hartzea.
  - iii. Jarduera zabaltzea, sare sozialen eta/edo baliabide tradizionalen bidez.
  - iv. Jarduera argitalpen espezializatuetan sartzeara.
- g. Zorrotzaurrera inbertsioak, enpresa-ekimenak eta enpresak erakartzeko laguntza.

2. Zorrotzaurrera publikoak erakartzeko potentziala. 35 puntu

Dinamizazio ekonomikoan proposatutako proiektuaren eraginkortasuna eta eragina. Horretarako, honako hauek baloratuko dira:

- a. Publikoa erakartzea irlara, ekitaldien bidez.
- b. Komunikabideetan duen eragina (prentsa tradizionala, sare sozialak, foroak...)

3. Erakundearen autofinantzaketa-gaitasuna bere proiektuan sortutako jardueren bitartez. 5 puntu

Eremuan esku hartzea funts publikoetan bakarrik oinarritu behar ez dela ulertzen denez, atal honek positibotzat hartuko ditu erakunde onuradunaren berezko funtsen ekarpena eta ekarpen pribatuan edo diruz lagundutako proiektuaren beraren jardueraren bidez eskuratutako diru-sarrerak.

Erakunde eskatzaileak autofinantzaketarako duen gaitasuna baloratzeko, proiektuaren finantzaketa-iturrien txostena aztertuko da.

Proiektuek deialdi honen 6.2 atalean jasotako "dokumentazio teknikoa" atalean eskatzen den informazio guztia eduki beharko dute ezinbestez

Aurrez jasotako puntuazio guztiak gehieneko puntuazio modura hartzen dira irizpide bakoitzerako.

Balorazioaren emaitzaren arabera, honako puntu-eskala hau ezartzen da:

- a) 80 eta 100 puntu bitartean, programak A motakotzat joko dira.
- b) 60 eta 79 puntu bitartean, programak B motakotzat joko dira.
- c) 40 eta 59 puntu bitartean, programak C motakotzat joko dira.
- d) 20 eta 39 puntu bitartean, programak D motakotzat joko dira.
- e) 0 eta 19 puntu bitartean, programek ez dute diru-laguntzarik jasoko.

## **6. DIRU-LAGUNTZAK ESKATZEKO, ESLEITZEKO ETA ORDAINTZEKO PROZEDURA**

### **6.1. Eskabideak aurkezteko tokia**

Diru-laguntza hauek norgehiagoka erregimenaren arabera deitzen dira. Prozedura interesdunek eskatuta hasiko da; horretarako, eskabidea aurkeztu beharko dute 2016ko urriaren 1etik 31era.

Diru-laguntzetarako eskabideak Bilbao Ekintzako Enpresa Sustapenerako Arloari zuzenduko zaizkio, deialdi honen eranskinetan jasotzen diren ereduak jarraikiz, eta elektronikoki aurkeztuko dira; horretarako, dokumentazioa bidaliko da Enpresa Sustapenerako Arloaren helbide elektronikora: [promocionempresarial@bilbaoekintza.bilbao.net](mailto:promocionempresarial@bilbaoekintza.bilbao.net).

### **6.2. Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa**

Eskatzaileek aurkeztu beharko dute:

- a) Eskabide-orria (deialdi honetako 1 eranskinean ageri den ereduak), erakundearen ordezkariak sinatua; adierazpen hauek hartuko ditu barnean:
  - Helburu berarekin lortutako diru-laguntzen zerrenda, laguntzen emaitzak eta zenbatekoak zehazturik, eta etorkizunean beste diru-laguntzarik jasoz gero Bilbao Ekintzari horren berri emateko konpromisoa.
  - Deialdiaren eta horren edukiaren jakitun da, eta bertan eskatutako baldintzak betetzen ditu.
  - Diru-laguntzaren baldintzak betetzeko konpromisoa.
  - Erantzukizun-aitorpena, haren bitartez adieraziz eskatzailea ez dagoela laguntzen onuradun izatea eragozten duten kasuetako ezeinetan, Diru laguntzei buruzko Lege Orokorraren 13. artikuluan xedatutakoaren arabera.
  - Bilboko Udalarekin zerga-betebeharrei dagokienez, egunean dagoelako adierazpena.
- b) Eskaera-inprimakiaren batera honako dokumentazio hau aurkeztuko da, aurreko deialdietan aurkeztu badira eta aldatu ez badira izan ezik.
  - Erakundearen eratze-eskriuren kopia (hala badagokio), eta IFZ.
  - Sinatzen duen pertsonaren aldeko ahalordearen kopia eta haren NANA.
  - Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dauzkala egiaztatzen duten ziurtagiriak. Dokumentu horien ordezkari, Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistro Ofizialak emandako ziurtagiria, Lizitatzzaileen eta Estatuko Enpresa

Sailkatuen Erregistro Ofizialak emandakoa edo Sailkapenaren Ziurtagiri Komunitarioa aurkeztu ahalko dira.

c) Ondorengo dokumentazio teknikoak:

- Diru-laguntza eskatzeko arrazoitzat aurkezten diren proiektuaren plana, xehetasunez azaldua eta sinatuta Planean atal hauek zehaztuko dira:
  - a. Erakunde eskatzailearen aurkezpena
  - b. Diru-laguntza eskatzeko aurkezten den proiektuaren aurkezpena
    - i. Proiektuaren gauzapen-plan laburtua.
    - ii. 2016ko diru-laguntzak eskatzeko aurkezten den proiektuari buruzko txostena, xehetasunez.
    - iii. Proiektuaren finantzabideei buruzko txostena.
- Aurrekontuaren xehetasunak, Bilbao Ekintzak emandako ereduari jarraikiz, eskatzen diren jardueren unitate-prezioak zehaztuta edota jarduera horien proforma fakturak. Deialdi hau argitaratu aurretik gauzaturako jardueren kasuan, horietan egindako gastuen fakturak ere aurkeztu ahalko dira.

Bilbao Ekintzak eskatutako laguntza ebaluatzeko beharrezkoa deritzon edozein agiri eskatu ahalko dio erakundeari. Era berean, proiektuen kontrolerako eta jarraipenerako beharrezkoak diren egiaztapenak egin ahalko ditu.

Eskabideak betekizunak bete ezean eta oinarri hauei jarraiki eskatzen diren agiriak erantsi ezean, interesdunari jakinaraziko zaio 10 egun baliouduneko epea izango duela akatsak zuzendu edo aginduzko agiriak bidaltzeko. Jakinarazpenean beren-beregi ohartaraziko zaio, ezen, eskatutakoa bete ezean, eskabidea gaitzetsizat joko dela, horrela ebatzi ondoren.

### 6.3. Eskaeren instrukzioa eta balorazioa

Deialdi honek instrukzioko organo bat du, eta hura Bilbao Ekintzako Enpresa Sustapenerako Arloari atxikitako langile teknikoek osatzen dute.

Aurkeztutako eskaeren ebaluazioa Balorazio batzorde batek egingo du, eta hura lehendakaritza, batek, ordezkari batek eta batzordekide batek osatuko dute. Enpresa Sustapeneko arduradunak hartuko du lehendakaritza, sektore estrategikoetako arduraduna izango da batzarkidea eta idazkaritza lanak teknikari batek egingo ditu –instruktoarea ez dena–.

Balorazio Batzordeak, deialdi honetan finkatutako balorazio irizpideen arabera aurkeztutako eskaerak baloratu ostean, txosten bat egingo du, eta bertan, ebaluazioaren emaitza eta eskaeren lehentasun bat zehaztuko dira.

Instrukzio-organoak, Balorazio Batzordearen espedientea eta txostena ikusirik, behin betiko ebazpen-proposamena egingo du; bertan, erakunde eskatzaileen zerrenda adieraziko da, horretarako, diru-laguntzak ematea eta haien zenbatekoa proposatzen dira, eta haien ebaluazioa aplikatutako balorazioaren irizpideekin zehaztuko da.

#### 6.4. Ebazpena

Bilbao Ekintza, EPELen zuzendaritza nagusia da prozedura ebazteko organoa.

Ebazpena emateko epea hilabete izango da gehienez, eskabideak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo egunean zenbatzen hasita.

Deialdiaren ebazpena erakunde interesdunei hamar egun balioduneko epean jakinaraziko zaie interesdunei, ebazpena emandako egunean zenbatzen hasita. Gehieneko epe hori amaitu eta ebazpena jakinarazi ez bada, interesdunek zilegitasuna dute diru-laguntza emateko eskabidea administrazioaren isiltasunaren bitartez ezetsi dela ulertzeko.

Erakunde eskatzaileei diru-laguntza eskaera onartu edo ukatu den jakinaraziko zaie, bai eta diruz lagundutako proiektuekin lotutako guztizko zenbatekoa ere, hala badagokio.

Diru-laguntza ematen edo ukatzen duen ebazpenak administrazio-bideari amaiera ematen dio. Haren aurka Zuzendaritza Nagusian aukerako berraztertze errekurtsoa jarri ahalko da.

Eskaerak sortuko dituzten ebazpenak eskatzaileek adierazitako bideen bitartez jakinaraziko dira.

Deialdi honetan jasotako aurrekontu-gordailua amaitzeak eskatutako diru-laguntzaren ukapena ekarriko du.

#### 6.5. Onarpena

Entitate onuradunek hilabeteko epean onartu beharko dute diru-laguntza, diru-laguntzaren ebazpenaren jakinarazpena jasotzen den unetik zenbatzen hasita. Horretarako, dagokien onarpen-eredua bete beharko dute eta, gainera, bankuko datuen fitxa aurkeztu beharko dute (ereduaren arabera). Zehaztutako epean berriaz onartzen ez bada, emandako diru-laguntza ukatutzat joko da.

Bilbao Ekintzak, jarduerak egiteari dagokionez, behar duen edozein agiri eskatu ahal izango die entitateei (lizentziak, aseguruak eta abar).

## 6.6. Birformulatzeko aukera

Eskaerak eskatzaileak jarduketa-planean sartzen duen jarduera-planifikazio orokorraren arabera ebaluatuko dira. Horregatik, baliteke lehenik diru laguntzen ez diren proiektuek uste izatea esleitzen zaien kopurua hasiera batean pentsatutako jarduteko aukeren funtsezko aldaketa bat dela.

Horrelakoetan, eta Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren 27. artikulua aplikatuz, onuraduna eskaera birformulatzera hertsatu ahalko da, konpromisoak eta baldintzak eman daitekeen diru-laguntzara egokitzeko asmoz. Bilbao Ekintzak eskaera onartzen duenean, egindako organo eskudunari bidaliko zaio, horrek ebazpena eman dezan. Edonola ere, eskabideak berriro egitean jaramon egin beharko zaie diru-laguntzaren xede, baldintza eta helburuei, bai eta eskabideei buruz ezarritako balorazio-irizpideei.

## 6.7. Ordaintzeko prozedura eta justifikazioa

Emandako diru-laguntzen ordainketa ondorengo epe eta baldintzetan egingo da:

1. Lehenengo ordainketa bat egingo da, diru-laguntza osoaren % 80koa, onarpen-dataren jakinarazpena egin eta hilabeteko epean, bankuko datuen fitxarekin batera.
2. Diru-laguntza guztiaren % 20ko bigarren ordainketa 2016. urtea amaitzean ordainduko da, eta ondorengo dokumentazioa aurkeztu ostean:
  - *Jardueraren memoria*, egindako jarduerak eta lortutako emaitzak bertan adierazita (eta dokumentazio grafikoa erantsita jardueren inguruko ikus-jakintza ahalbidetzeko).
  - *Justifikatzeko memoria ekonomikoa*, Bilbao Ekintzak emandako ereduaren arabera, eta honako hau jasoko du:
    - o Egindako jardueren diru-sarreraren zerrenda.
    - o Egindako jardueretan izandako gastuak, hartzekoduna identifikatuta.
    - o Eskatutako aurrekontuak diru-laguntzari egotzitako gastuetako batek azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegileak ezarritako muga gainditzen duenean; errege-dekretu horren bidez, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina onartzen da kontratu txikiarako (18.000 euro) eta gutxienez hiru aurrekontu aurkeztea exijitzen duena.
    - o Diru-laguntzaren zenbatekoari egotzitako jatorrizko fakturak edo konpultsatutako kopia eta ordainketaren egiaztagiriak. Faktura horiek ezin izango dira beste erakunde batzuetan diru-laguntzak justifikatzeko aurkeztu, ez egotzitako ehunekoan salbu.

Nolanahi ere, dokumentazio hau aurkezteko epea, diru-laguntzaren % 20ko ordainketarako gaitzen duena, 2017ko otsailaren 28an amaitzen da

Salbuespen gisa, onartuko da behin-behinean sartzeari dagoen diru-laguntzaren helburu den ekitaldiari dagozkion fakturak. Hala denean, erakunde onuradunak fakturak ordaindu

izanaren ziurtagiriak aurkeztu beharko dizkio Bilbao Ekintzari 2017ko apirilaren 1a baino lehen. Aurkezten ez baditu, erakundeak itzuli egin beharko du justifikatu gabeko diru-kopurua.

Erakunde onuradunaren ordezkartza-karguak ezin izango dira izan, inola ere, diruz lagundutako jardueren hornitzaile.

#### 6.8. Diru-laguntzen aldiberekotasuna eta bateragarritasuna.

Estatuko edo nazioarteko edozein Administrazioak edo erakunde publiko edo pribatuk emandako beste diru-laguntza batzuk jasotzea onartzen da, baldin eta haien zenbatekoak (bakarrik edo beste diruz laguntza batzuekin batera) diruz lagundutako jardueraren kostua gainditzen ez badu edo eskatutako finantzaketaren zenbatekoa murriztea ez badakar, hala badagokio, diruz lagundutako proiektua betetzeko.

Aurkeztutako proiektuak gauzatzeko dakartzan gastuei dagokienez, soilik emango zaio diru-laguntza bestelako laguntzarik edo diru-laguntzarik esleitu ez zaion zatiri

## **7. EGINBEHARRAK. EZ BETETZEA ETA LAGUNTZAK ITZULTZEA**

### 7.1. Eginbeharrak

Erakunde onuradunen betebeharrak dira:

- a) Xedea betetzea, proiektua burutzea, jarduera egitea, edo diru-laguntza edo laguntza ematea oinarritzen duen jokabidea izatea.
- b) Bilbao Ekintzaren aurrean eskakizunak eta baldintzak betetzen direla, jarduera egin dela eta diru laguntza emateko edo izateko helburua betetzen dela justifikatzea.
- c) Bilbao Ekintzak egin ditzakeen egiaztapen-jarduerari men egitea. Era berean, erakunde onuradunek men egin beharko diete kontrol-organo eskudunek, naziokoek nahiz erkidegokoek, egin ditzaketen egiaztapen- eta finantza-kontrolako jarduera guztiei, eta aipatutako jardueren barruan eskatzen zaizkien guztiak aurkeztu beharko dituzte.
- d) Diru-laguntza jaso duten jarduerak finantzetako beste diru-laguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabide batzuk lortu badira, hori Bilbao Ekintzari jakinarazi beharko zaio. Horien guztien berri izan eta berehala egingo da jakinarazpena eta, nolana ere, jasotako funtsei emandako aplikazioa justifikatu baino lehen.
- e) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean egotea egiaztatzea, diru-laguntza emateko ebazpena egiaztatu baino lehen, araudian zehazten den eran. Dena dela, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen hemezortzigarren xedapen gehigarrian ezarritakoa aplikatu ahal izango da.
- f) Kontabilitateko liburuak, bideratutako erregistroak eta gainontzeko dokumentuak behar bezala ikuskatuta eta eskura izatea, merkataritzako legediak eta kasu bakoitzean onuradunari aplikatu dakioken sektoreko aginpideak exijitutakoaren arabera. Horretaz gain, Bilbao Ekintzak

eskatutako kontabilitate-egoerak eta berariazko erregistro guztiak onartuko ditu, egiaztatze eta kontrolatzeko ahalmenak egoki erabiltzea bermatzeko helburuarekin guztiak ere.

- g) Jasotako funtsak aplikatzeko egiaztagiria gorde beharko dituzte, elektronika-agiriak barne, agiri horiek guztiak egiaztatu eta kontrolatzekoak direlako.
- h) Egindako ekintzen finantzaketa zabaltzea, erabilitako euskarrietan Bilbao Ekintzaren logotipo ofiziala txertatuz, bai eta bi hizkuntza ofizialak ere (euskara eta gaztelania), ekintzen publizitateko elementu gisa egiten diren kartel, testu eta dokumentuetan. Gisa berean, diru-laguntzaren xede den jarduerari lotutako sustapen esku-hartze publikoak eta hala dagokionean megafoniaz ematen diren mezuak elebidunak izango dira, euskara eta gaztelania ordena horretan erabiliz.
- i) 38/2009 Lege Orokorraren, Diru laguntzei buruzkoaren, 37. artikuluan bildutako egoeretan jasotako funtsak itzultzea.

## 7.2. Ez-betetzea eta laguntzak itzultzea

Ondorengo kasuetan, bidezkoa izango da jasotako kopuruak itzultzea. Diru-laguntza ordaindu den unean hasi eta diru-laguntza itzuli behar dela erabaki den egunera arteko berandutze-interesak eskatuko dira Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 37. artikuluan jasotako kasuetan.

Itzultzeko prozedura izapidetzean, erakunde onuradunaren entzunaldi-eskubidea beteko da; horren ondoren, erakundearen sail teknikoak horren gaineko txostena emango du. Itzultzeko eskakizunaren inguruko ebazpena Bilbao Ekintzako Zuzendaritza Nagusiak aitortuko du eta erakunde onuradunari jakinaraziko zaio.

Erakunde onuradunaren betetzea erabateko betetzera modu esanguratsu batean hurbiltzen denean eta hark bere konpromisoak betetzeko jardura bat egin duela zalantzarik gabe egiaztatzen duenean, itzuli beharreko zenbatekoa diru-laguntzaren xede den jardueraren betetze kopuruak edo mailak zehaztuko du, proportzionaltasun-printzipioa errespetatuz.

## 8. ONURADUNEI BURUZKO INFORMAZIOAREN KONFIDENTZIALTASUNA

Bilbao Ekintzak hartzen duen konpromisoaren arabera, haren jardura-programetan diharduen pertsonala edozein informazioaren jakitun suertatzen bada programa horietako laguntza jasotzaileei buruz, delako informazio hori soilik erabiliko da programaren helburuetarako. Horrexegatik, hain zuzen ere, beharrezkoa denean kanpo-aholkularien lana, programak garatzeko, Bilbao Ekintza EPELe konfidentzialtasun-konpromisoa eskatuko die beren zereginak direla medio ezagut dezaketen informazioaren tratamenduari dagokionez.

## **9. AURREKONTUKO IZENDAPENA**

Bilbao Ekintzak deialdi honetan jasotako laguntza ekonomikoetarako 100.000,00 euro bideratuko du.

## **10. LAGUNTZA-PROGRAMAREN INDARRALDIA ETA GARAPENA**

Laguntza-planaren deialdia 6.1 atalean ezarritako epean aurkezten diren eskaerei aplikatuko zaie

Programa indarrean egon bitartean beharrezkotzat jotzen bada haren alderdietakoren bat garatzea edo programaren muina aldaraziko ez duen egokitzapenen bat egitea, Bilbao Ekintzako Zuzendaritza Administrazio Kontseiluak ahaldundurik egongo da egin beharreko aldaketei ekiteko, eta horien berri eman beharko dio Kontseiluari aldaketen erabakia hartu ondoren egiten den lehenbiziko bileran.

## **11. NORBERAREN DATUEN BABESA**

Abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan xedatutakoaren arabera, Bilbao Ekintzak jakinarazi du deialdi honen bidez aurkeztutako eskaerak izapidetzean sortzen diren agirietan adierazitako datu pertsonalak Bilbao Ekintza EPELen (Nafarroa kalea 5, 48001 Bilbo) jabetzapeko fitxategi batean jasoko direla, Enpresa Sustapenerako Alorrak ematen dituen zerbitzuak kudeatzeko asmoz.

Nolanahi ere, interesduna horren jakitun geratzen da eta baimena ematen du bere datuak helburu horretarako erabil daitezen eta aholkularitza-enpresek, erakunde publikoek, fundazioek eta finantza-erakundeek datu horietarako irispidea izan dezaten enplegu-politika aktiboak kudeatzeko, lan-merkatuko bitartekari jarduteko eta lan-merkatuari buruzko azterketak egiteko.

## **12. EMANDAKO LAGUNTZEN PUBLIKOTASUNA**

Diru-laguntzen gaian indarrean dagoen araudia betez, Bilbao Ekintzak emandako diru-laguntzak argitaratuko ditu bere webgunean eta aldizkari ofizial egokietan.

## **13. PROIEKTUAK GARATZEKO BALDINTZAK**

Diruz lagundutako proiektuen garapenak ondorengo baldintzak betetzea eskatuko du:

- a) Giza eskubideen adierazpen unibertsalean xedatutakoa ezingo dute urratu.
- b) Gizon eta emakumeen benetako berdintasunarekin konprometituta izango dira, eta haien partaidetza aktiboa sustatuko dute.
- c) Hizkuntza inklusiboa erabiliko dute generoaren zentzu batean.
- d) Ez dira diskriminatzaileak izango sexu, jatorri geografiko, kultura, adin, genero, identitate, sexu-praktika eta abarren arrazoiengatik.

- e) Ingurumeneko iraunkortasuna sustatuko dute.
- f) Zabaltzeko eta egiteko garaian, bereziki, euskara eta gaztelania erabiliko dute; nolana ere, proiektuen eremuak hala eskatzen duenean, beste hizkuntza batzuk erabiltzea errespetatu ahalko da.

#### **14. ARAUBIDE JURIDIKOA**

Deialdi honetan aurreikusi ez diren alderdi guztietarako, Bilboko Udalak, bere erakundeek eta zuzenbide publikoko erakundeek deialdiaren bidez diru-laguntzak emateko oinarriak arautzen dituen ordenantza orokorra aplikatuko dute, bai eta azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, Diru-Laguntzei buruzkoa eta, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak onetsitako haren araudia ere, eta, ordezkotza, azaroaren 26ko 30/1992 Legea, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa.

Azaroaren 26ko 30/1992 Legearen ordenantzaren erreferentziak honako lege hauen arabera egin direla ulertuko da: 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa, eta 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoko Araubide Juridikoari buruzkoa, indarrean sartzen direnetik aurrera.

#### **15. INDARREAN JARTZEA**

Deialdi hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.